

EUSKALERRIAREN BURUJABETZA

EDO ASKATASUNA

Buru jabetza edo askatasuna arazo bizi biurtu jaku, zorionez, Europa-aldean, batez be laterri komunistetan, jazo diranak ikusi ondoren.

Lituania, Letonia ta Estonia edo Georgia edo Bosnia edo... euren buruen jabe izateko gai ba'dira edo esku-bidea ba'dabe orretarako, zergaitik ez bardin esan Kortzega edo Bretaña edo Euskalerrria, Kataluña ta Galitzia'ri buruz?

Mingarri izan jaku Aita Santuak Euskalerrri ta inguruetako Gotzaiñak artu dauzanean, "España aberria" aitatu izatea. Esaldi orrek bere elburua izango dau, naizta aspaldiko urteetan eta España-giroan, laterria ta aberria berbak sarritan, ia beti, nastauta erabilli izan.

Baiña zer pentsatzen dogu euskaldunok arazo oneri buruz? Nai ete dogu askatasun oso ori?

Benetan itaun erantzugarria! Eta itaun ori egin dau Amatiño'k ETB'ren lenengo katean, Zurekin Zuzenean deritxon ekinaldiaren barruan. Entzugarria izan zan ekinaldi orren zati ori. Berak esan eban lez ez da aitzu bear gero, erantzuten daben guztiak euskera dakienak dirala eta euskereak abertzaletasun zintzoa indartzen dauala. Antzeko itaunketa egin bearko litzake erdera egiten dan lurraldeetan be.

Ondorena zein izango litzaken? Ez bear ba'da ain bateratua, baiña lurralde orreitan ba asko dira abertza-leak, askatasun osoaren alde diranak.

Eta alderdi politikuetako jenteak zer uste ete dau?

Batzutan jokabideagaitik, beste batzutan epe laburrerako elburuak dirala-ta, gai orreri buruz be eztabaidak ikusten doguz, baiña barru-barruan benetan euskaldun diran alderdiak askatasun osoaren alde dagoz, ez ostera burua Madrid'en eta oiña emen dauken alderdiak.

Eta arazoa ez da laterri aukerea edo "autodeterminaziñoa", ori betetea eta orrek eskatzen dauan eraz bizi-

ten astea da itauna, eta askok esan eban lez, oraintxe orrelan biziten astea. Ze amets ederra?

Zein izan zan ba, euskaldunak arlo orretan agertu eben eritxia?

Ara zer diñon an izan zan eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkio itza dauan Jose Arregi'k: "Eskalerrriko erritarrik geien-geienak burujabetzarako jokabideak sakontzea nai dabe, eta jabetza edo askatasun osoa nai dabenak eta bide orren aurka doazenak, kopuru bardin-antzeko dira".

Beste itaun bat be egin bear da arlo onetan: Autarkietara sartu leike, gu aberria garan ale ez, arazoa? Ez orixe. Aberria izatea ez da aukerapena, bagara edo ez gara. Autarkietara ezin sartu leike une onetan eguna dan ala ez arazoa. Eguna ba'da eguna da eta gaba ba'da gaba, autarkiak bata naiz bestea esan. Antzera da aberriaren arazoa: Euskaldunok aberria gara eta ori ez dago eztabaidatzerik. Naparroa Euskalerrria da eta ez dago eztabaidatzerik. Bardin Ipar-Euskalerrria.

Eztabaidatzen dana edo autarkietara sartu leitekena beste arazo au da: Gure aberri onek laterria izan bear dauan al beste laterri bateri lotuta iraun bear dauan. Edo aberri bat izanik, laterri bi osotu daikeguzan.

Euskalerrria emen dago. Ori eztabaidatzerik ez dago. Eguna danean, gaba dala esatea litzake.

Baiña Aberriak ezaugarri batzuk ditu: Bere izkuntza, bere oiturak, bere jakintza, bere kondaira eta abar.

Benetako euskaldunak ez dau iñoz alboratu bear ezaugarri oneik indartzea ta bizkortzea. Ori ez egitea, aberria ukatzea litzake, zor aundi bat ez ordaintzea, aberri guztiak gizadiari dautsoen zorra, erriaren maitasunak eskatzen dauan ordaintzekoa.

O.'ek